

Zergadunei **laurehuna** euro itzultzea
agindu du Zapaterok.

EHULKUren aholkua

Zenbaki banatzaileak




Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

Euskara Zerbitzua



Zenbaki banatzaileak

- Mota honetako zenbakiak *-na* atzizkia erabiliz osatzen dira.



Euskaltzaindiaren 18. araua

Zenbaki banatzaileak

● Banakoak eta hamarrekoak:

- bana
- bina
- hiruna
- bosna (*bostna)
- hamar
- hamasei
- hogeita bos
- hirurogeita hemezortzi
- ...

Zenbaki banatzaileak

● Ehunekoak:

- ehuna
- ehun eta seina
- berrehuna
- berrehun eta hamaseina
- bederatziehun eta hogeina
- ...

Zenbaki banatzaileak

● Milakoak, milioikoak...:

- mila bana (*milana)
- bilioi bana (*bilioina)
- bina mila milioi (*bi mila milioina)

● Baina:

- bi milioi bostehun eta sei**na**
- sei bilioi bostehun eta berrogeita hamasei mila laurehun eta hemezortzi**na**
- ...

Zenbaki banatzaileak

Dena dela, zenbakia konplexua delarik,
"bakoitza..." esapidea erabiltzera jotzen
da, eta ez *-na* atzizkia.

- 15.452 euro egokitu zaizkio biztanle bakoitzari.
- 13,5 ml oxigeno hartzen ditu zelula bakoitzak.



Zenbaki banatzaileak

● Galdetzailea **zenbana** da:

■ **Zenbana** euro esan du Zapaterok itzuliko diela zergadunei?

(Zenbat euro esan du Zaparetok itzuliko diola zergadun bakoitzari?)

Zenbaki banatzaileak

● Halakoen erabileraren zenbait adibide:

- Kalte moral horregatik, epaileak **hamabina mila** euro ordaintzera kondenatu zituen abokatua eta aseguratzailerak.
- Haien senideek **hamabina mila** euro ordaintzen dituzte.
- **Ehuna mila** euroko bermea ezarri die epaileak hiru inputatuei.
- Tabernan ogitarteko **bana** jan ondoren, aire zabalean egin zuten lo, izarrei begira.

Zenbaki banatzaileak

● Halakoen erabileraren zenbait adibide:

- Ehun bat bilioi galaxia daude, eta haietan **ehuna bilioi** izar inguru.
- Hiru igogailutan **bina** pilota kokatuko ditugu.
- Puntu **banatatik** abiatzen dira partikulak, eta puntu berera heltzen.
- Sokaren mutur **banatan** jarriko ditugu pisuak.
- Dodekaedroak 20 erpin eta 30 ertz ditu, eta 12 aurpegi, **bosna** alde dituztenak.

EHULKUren aholkua

Zenbaki banatzaileak

